

# ERTZ #10

## TOSHIMARU NAKAMURA & IGNAZ SCHICK

<http://www.japanimprov.com/tnakamura/>  
<http://www.myspace.com/ignazschick>

[www.ertza.net](http://www.ertza.net)

Tras introducirse en los 90 en el mundo de la improvisación con la guitarra, en los últimos años Nakamura ha investigado en el campo de la música electrónica y la improvisación libre. Conocido por desarrollar una técnica personal llamada "no-input mixing board" que lo ha hecho conocido internacionalmente, su nombre esta fuertemente ligado al movimiento de improvisación vanguardista de Japón como demuestran sus trabajos en solitario, composiciones para teatro y el trabajo de dinamización realizado junto a otros músicos como Taku Sugimoto y Tetuzi Akiyama en la galeria Off Site de Tokyo.

Tras haber estudiado saxofón y haber participado en diversos proyectos de rock y jazz, a mediados de los 90 Schick comienza a trabajar exclusivamente con medios electricos y electrónicos. Mediante el uso de samples de softare y hardware, micrófonos de contacto y otras técnicas, encontró en el tocadiscos o turntable su instrumentos principal. Por tanto utiliza el motor giratorio del tocadiscos para combinar diversos materiales y objetos (metal, plástico, papel...) con los que obtiene extraños y diversos sonidos, vibraciones y texturas.

Toshimaru Namakura actuó en el festival ERTZ en el año 2004, por doble. En aquella ocasión actuó en dúo junto a Keith Rowe y en cuarteto junto a Rowe, Oren Ambarchi y Christian Fennesz (4 gentlemen of the guitar).

---

## TZESNE\_PARALUX

[www.seriesnegras.org](http://www.seriesnegras.org)

De ellos dijimos en el 2002: Tzesne llega desde la parte mas industrial de la costa este de Gipuzkoa. El que fuera uno de los fundadores de la formacion industrial Gutural, ha sabido reflejar y evolucionar la intensidad y la fuerza de su anterior proyecto en trabajo s autopublicados como "La Cuchara" o "Etxeko mehatxuak". Música industrial, oscura, pero que traga al oyente. Y siete años más tarde no podemos más que reafirmarnos en lo dicho. Lo único, la trayectoria realizada por estos dos artistas es mucho más extensa, el conocimiento más amplio y la experiencia mucho más rica.

La pareja TZESNE-PARALUX ha mantenido una estrecha relación con el festival ERTZ desde sus inicios. En el año 2002 participaron en dos eventos, por una parte actuando en el festival y por otro en el concierto de 24 horas. Por su parte PARALUX participó en el proyecto BERANDU/DESTIEMPO en el año 2003.

# ERTZ #10

[www.ertza.net](http://www.ertza.net)

## **GREGG KOWALSKY**

[www.greggkowsky.net](http://www.greggkowsky.net)

Los trabajos de este músico nacido y afincado en California beben por igual de las músicas drone, de los ruidos como de la psicodelia. Tras haber publicado su primer trabajo en solitario en el catálogo del sello norteamericano Kranky, Kowalsky nos presenta el trabajo "Tape Chants". Este proyecto investiga los espacios acústicos mediante el uso de reproductores de cassette y sus propios altavoces, entendidos estos como instrumentos musicales. Durante las actuaciones Kowalsky camina en el espacio variando y combinando los volúmenes y las reproducciones de los cassettes, en una actuación a camino entre el concierto y la instalación.

---

## **ANDER LIPUS & MIREN GAZTAÑAGA & XABI STRUBELL**

"ETA NIK ERE SAGAR BAT DARAMAT NIRE BAITAN"

"Y yo también llevo una manzana en mi interior"

"we should build bridges not walls"

ACTORES: MIREN GAZTAÑAGA - ANDER LIPUS

MÚSICO: XABI STRUBELL

ILUMINADOR: OIER ITUARTE

Tres personas se ubican en un espacio circular: dos actores y un músico, una misma situación. Esta creación se presenta a modo de performance donde la improvisación toma un papel principal. Ocurren diferentes acciones: lo cotidiano se convierte en otra cosa. La reflexión y la palabra flotan, las presencias quedan, el sonido evoluciona, y se añaden las sensaciones de sombra y luz... a fin de cuentas la vida se nos presenta desnuda. Por tanto, el tiempo y el espacio viven al momento y fluyen al mismo tiempo. La obra propone un foco sobre la privacidad para finalmente ganar espacio para el Arte, porque todos/as llevamos una manzana en nuestro interior".

La Fábrica de teatro Imaginario (F.T.I -Antzerkiola Imaginarioa) participó en el año 2001 en la edición del festival ERTZ.

---

## **iiio**

Miembro de la banda Café Teatro, comenzó su proyecto en solitario al mudarse a UK en el año 2005. Sin abandonar su instrumento original, la guitarra, y añadiendo otros como el banjo y ukelele, presentará con la ayuda de una sección de viento las canciones que formarán parte de su primer álbum "back&forth" que publicará a principios del 2010 en Talo recordings.

Iñigo Ugarteburu participó por primera vez en el festival ERTZ en la edición del 2001, junto a la banda CAFÉ TEATRO. En el año 2002 actuó en el concierto de 24 horas con un experimento de guitarra y dos baterías, y finalmente volvió a actuar con CAFÉ TEATRO en el año 2005, en esta ocasión fuera del programa del festival.

# ERTZ #10

## TOSHIMARU NAKAMURA & IGNAZ SCHICK

<http://www.japanimprov.com/tnakamura/>  
<http://www.myspace.com/ignazschick>

[www.ertza.net](http://www.ertza.net)

90. hamarkadan gitarrarekin inprobisatzen hasi eta gero azken urteotan musika elektronikoaren eta inprobisazio erradikalaren inguruan ikertzen ibili da Nakamura. Bereziki "no-input mixing board" izeneko teknika erabiliz nazioarteko eszenan ezagun egin duen estilo eta nortasun bakarra sortu du. Antzerkirako hainbat konposizio lan egin du eta Tokyoko inprobisazio eszenako dinamizatzailea izan da Taku Sugimoto eta Tetuzi Akiyamarekin batera, bertako Off Site galerian egindako lanarekin.

Saxofoia ikasketak egin eta rock nahiz jazz munduan hainbat talderen parte hartu ondotik, 90. hamarkada erdialdean gailu elektronikoean hasi zen lanean. Bertzeak bertze sample software eta hardwareak, kontaktuzko mikrofonoak edo landa grabaketak erabiliz musika egiten hasirik tokadiskoa edo turntablea moldatuz topatu zuen gaur bere tresna nagusia dena. Objeto eta materiale desberdinak (metala, plastikoa, papera...) birak ematen dituen tresna honetan erabiliz bibrazio eta testura musikal desberdinak sortzen ditu.

Toshimaru Namakurak 2004ean jo zuen ERTZ jaialdiaren lehen aldiz. Lehen aldi hartan Keith Rowe (bikote modura) eta Oren Ambarchi eta Christian Fennesz (4 gentlemen of the guitar) izan zituen lagun.

---

## TZESNE\_PARALUX

[www.seriesnegras.org](http://www.seriesnegras.org)

2002an erran genuen: Gipuzkoako kostaldeko industriadetik heldu da Tzesne. Gutural talde industrialeko sortzaile izandakoak garai bateko gogortasuna eta indarra bertze modu batean azaltzeko beharra islatu du "La Cuchara" edo "Etxeko mehatxuak" bezalako diska autoproduzituetan, baita ederki lortu ere. Bere musika industrial delat erran genezake, errepikakorra, baina barrura irensten duena da. Eta 2009an ezin dugu orduan errandakoa baieztatu bertzerik egin. Soilik egindako bidea eta jasotako jakintza zabalagoa da, eta bikote honen esperientzia are aberatsagoa.

TZESNE-PARALUX bikoteak erlazio estua izan du ERTZ jaialdiarekin lehenbiziko urtetik. 2002an hartu zuten parte jaialdian zuzenean joz, baita urte berean ospatu zen 24 orduko emanaldian ere. 2003an BERANDU/DESTIEMPO egitasmoan ere parte hartu zuen PARALUXek eta ERTZ jaialdiko antolakuntza taldean ere lagundu izan dute.

# ERTZ #10

## GREGG KOWALSKY

[www.greggkowsky.net](http://www.greggkowsky.net)

Kalifornian bizi den musikari honen lanek drone (pedal) musikatik, zaratatik edo psikodeliatik edaten dute. Kranky disketxe iparramerikarraren eskutik bere bakarkako lehen lana argitaratu ondotik "Tape Chants" izeneko lan berria aurkeztuko du Kowalskyk ERTZ jaialdian. Lan honetan espazio akustikoak ikertzen ditu kasete erreproduktoreak eta hauen entzungailuak erabiliz musika tresna bezala. Modu horretan Kowalsky-k kontzertua gertatzen den espazioa zeharkatzen du zuzenean kaseteak moldatuz, instalazioaren eta kontzertuaren tartean geratzen den emanaldian.

[www.ertza.net](http://www.ertza.net)

---

## ANDER LIPUS & MIREN GAZTAÑAGA & XABI STRUBELL

"ETA NIK ERE SAGAR BAT DARAMAT NIRE BAITAN"

"we should build bridges not walls"

AKTOREAK: MIREN GAZTAÑAGA - ANDER LIPUS

MUSIKARIA: XABI STRUBELL

ARGIZTATZAILEA: OIER ITUARTE

Espazio biribil batean hiru lagun: bi aktore eta musikari bat, egoera bat. Sorkuntza hau performantze bezela aurkezten zaigu, eta inprobisazioak hartzen du toki nagusia. Ekintza desberdinak gauzatzen dira egoera horretan: egunerokotasuna beste zeozer bilakatzen da. Gogoeta eta hitza airean, izakiak egonean, soinua bilakabidean, argilunen sentsazioak... azken batean bizitza biluzik agertzen zaigu. Hortaz, denbora eta espazioa bat-batean eta batera isurtzen dira. Pribatutasunaren gainean argia egiten da eta azkenerako espazioa Arterako irabazi, zeren eta denok daramagu sagar bat gure baitan.

Antzerkiola Imaginarioak (F.T.I) antzerki taldeak 2001eko ERTZ jaialdiaren edizioan hartu zuen parte.

---

## **iiio**

Café teatro taldeko kide honek, 2005ean hasi zuen bere bakarkako egitasmoa, Erresuma Batura bizitzera joaterakoan. Bere jatorrizko musika tresna den gitarra alde batera utzi gabe, banjoa eta ukelelea bezalako tresnak gehituz eta haizezko talde batek lagundurik, aldi honetan zarautzar honek laister bere lehenbiziko diska izanen den "back&forth" (talo recordings, 2010) osatzen duten kantuak aurkeztuko ditu lehen aldiz jendaurrean.

Iñigo Ugarteburuk ERTZ jaialdiaren 200eko edizioan hartu zuen parte lehen aldiz CAFÉ TEATRO taldearekin. 2002an 24 orduko kontzertuan ere jo zuen bi bateria eta gitarraz osatutako esperimantu batean eta azkenik 2005ean berriz ere jo zuen, oraingoan jaialditik kanpo, CAFÉ TEATRO taldearekin.